

Euskal literaturaren irakurleak zenbat eta nolakoak diren aztergai.

Soziolinguistikako datuetatik eta irakurketa-ohiturei buruzko ikerketetatik abiatuta

Harkaitz Zubiri Esnaola

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Euskal literaturaren irakurle kopurua eta irakurleen ezaugarriak funtsezkoak dira kultur eremu honentzat, baina ez dago emaitza doituak eskaintzen dituen berariazko ikerketarik, salbu eta gazteen irakurketa ohituren ezaugarriei buruzkoa eta eskoletako literaturaren irakaskuntzari buruzkoa. Irakurleen errealitateari argazkia atera ahal izateko aztertu ditut egoera soziolinguistikoari, kultura-ohiturei eta irakurketa-ohiturei buruzko zenbait ikerketa, zeren, ikuspegi kritiko batetik analizatzen baditugu, zeharka isla baitezakete euskal literaturaren irakurleak zenbat eta nolakoak diren. Emaitzen izaera hipotetikoa den arren, errealitatera hurbiltzeko balio dute: ohiko irakurle sutsuenak 15.000-20.000 inguru lirategi, ohiko irakurle moderatuak 40.000 inguru, eta tartekakoak une jakinetan 100.000-150.000 (aurrekoak barne). Gehiengo zabala Gipuzkoan eta Bizkaian bizi da, batik bat lehenengoan, eta, ziur aski, irakurle kopurua handiagoa da emakumezkoen artean, 25-54 urte artekoetan, eta, agian, unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.

GAKO-HITZAK: Irakurketa-ohiturak · Kultura-praktikak · Kultura-ohiturak · Euskara · Soziolinguistika.

Basque literature readers' number and features Based on research on sociolinguistics and reading habits

Basque literature readers' number and features are essential for this field. However, there is no specific research on it, except one about the features of young people's reading habits and another one about teaching literature at school. I took into account research on sociolinguistics, cultural habits and reading habits in order to take a photograph of the reader's reality, because, if we analyse research from a critical point of view, it might be useful to reflect Basque literature readers' number and features. Even though all results are hypothetical, they can be used to approach reality: hypothetically, there would be about 15.000-20.000 fervent regular readers, 40.000 moderate regular readers, and, exceptionally, 100.000-150.000 occasional readers (all the previous included). The majority of them live in Gipuzkoa and Biscay, most of them in the first one, and, probably, the number is bigger among women, people aged 25-54, and, perhaps, among those who have a university degree.

KEY WORDS: Reading habits · Cultural practices · Cultural habits · Basque, sociolinguistics.

Jasotze-data: 2013-02-21. Onartze-data: 2013-06-14.

1. Kopuru zehatzaren bila

Zenbat irakurle ditu euskal literaturak? Kopuru horrek berebiziko garrantzia du, baina ez dago halakorik kuantifikatzen duen berariazko ikerketarik. Ekoizpenari dagokionez, Juan Luis Zabalak eta Joan Mari Torrealdaik urtero argitaratzen dituzte datuak. Euskal literatura-ekoizpenaren loraldiaz hitz egiten den garai honetan, diskurtso hori zenbaketara ekar dezakegu. Aitzitik, irakurle gutxiegi daudela maiz entzuten dugun arren, ezin daiteke afera hori kopuru zehatzetan neurtu.

Euskal literaturan 1970eko hamarkadan Ibon Sarasolaren (1975) *Euskal literatura numerotan* eta Joan Mari Torrealdairen (1977) *Euskal idazleak gaur* egileen eta ekoizpenaren azterketan aitzindariak izan ziren bezala, Mari Jose Olaziregiren (1998) *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa* lehena izan zen euskal literaturan irakurzaletasuna ikertzen. Aurrekoek bezala, Idurre Alonsok (2008, 2010, 2012) ere erabili du soziologiaren ikuspegia euskal literatura aztertzeko, batik bat euskal literaturaren sisteman sortzen diren hierarkiak analizatzeko, eta fenomeno horrek eskoletako euskal literaturaren irakaskuntzarekin duen zerikusia ikertzeko. Artikulu honetan soziologiari lotutako ikuspegi horrekin arituko naiz kontsumitzaileen azterketan.

Irakurle kopuruari dagokionez, Bernardo Atxagak (2009) *Erlea* aldizkariaren aurkezpenean adierazi zuen euskal literaturak 1.700 lagunek osatutako irakurle kopuru sendo bat zeukala, euskal literatura sustatzeko nahikoa zela, baina aurrera egin beharra zegoela. Jon Alonsoren (2012) arabera, irakurle kopurua Euskadiko Editoreen Elkarteak 2009. urtean eskatutako ikerketatik eratortzen den 41.000 horiek izatetik baino hurbilago dago 12.000 irakurletik, edo agian Atxagak aipatzen dituen 1.700 horietatik. Iban Zalduak (2012: 128) argialetxeetan erabiltzen diren zenbakiak aipatuz dio irakurle kopurua 10.000 ingurukoa izan daitekeela.

Zenbaki horiek bestelako iturriekin alderatzearen, euskal literaturaren irakurle kopurua iradoki dezaketen hainbat ikerketaren emaitzak aztertu ditut. Zenbaki oso doituak lortu ez baditut ere, gaur egungo argazki bat egiteko balio dezaketen emaitzetara iritsi naiz. Horretarako, hainbat iturri alderatu ditut: euskararen egoera soziolinguistikoari buruzko bi ikerketa nagusiak (HPS, 2012; Soziolinguistika Klusterra, 2012), Kulturaren Euskal Behatokiaren kultur praktikei eta ohiturei buruzko ikerketa, irakurketa-ohiturak aztertzeko Euskadiko Editoreen Elkarteak, Federación de Gremios de Editores de España elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako ikerketak, eta CIES eta Ikerfel etxeek Eusko Jaurlaritzarentzat euskarazko hedabideei buruz egin zituzten hiru ikerketa.

Artikulu honen azterketa-estrategia egungo egoera soziolinguistikotik abiatzen da, horrek nabarmen baldintzatzen duelako euskal literaturaren irakurle kopurua. Halabeharrez, gehieneko kopuruak garbi zedarrizten ditu. Ondoren, kultur kontsumoa eta irakurketa-ohiturak izango ditut hizpide. Baldintza soziolinguistikoek kopurua mugatzen badute ere, kopuru hori are gehiago murrizten da, baldin eta gehieneko kopuru soziolinguistikoak kultur kontsumorako ohiturei buruzko datuen galbahetik pasaratzen baditugu. Segidan, irakurketa-ohituren analisisiaz propio arduratu diren ikerketetan agertzen diren kopuruak aztertuko ditut. Datu horiek

irakurtzeko hainbat irizpide azaldu eta erabiliko ditut, batik bat egoera soziolinguistikoari eta kultur kontsumo ohiturei lotutakoak, eta horien bitartez datuak elkarren artean alderatu eta gurutzatuko ditut, horrela balizko emaitza batzuetara iritsi ahal izateko. Azkenik, hurbilketa osatzearen, zeharkako iturrietan oinarrituz, euskal literatura irakurtzen dutenen ezaugarri nagusiak azaleratzen ere ahalegingduko naiz.

Nabarmendu beharra dago artikuluko honetan aurkezten ditudan emaitzak balizko kopuruak direla. Ikerketa guztietan, hautatutako ikerketa-estrategiek beti baldintzatzen dituzte emaitzak, eta, beraz, funtsezkoa da ikerketan erabilitako prozedura esplizituki azaltzea. Baina are garrantzitsuagoa da segidan aurkezten ditudan prozeduren gisakoak baliatzen direnean, bigarren mailako datuak erabiltzen baitira, elkarren artean gurutzatzeko, eta, horretarako hainbat irizpide finkatzen baitira. Hortaz, ezinbestekoa deritzot irizpide horiek garbi azaltzeari, eta, era berean, emaitzen balizko izaera nabarmentzeari.

2. Euskararen argi-ilunek eragin handia dute, noski

Euskararen egoerak, jakina, eragin handia du euskal literaturaren irakurle kopuruan. Bi inkesta soziolinguistiko garrantzitsuenen azken emaitzak aztertzen baditugu (HPS, 2012; Soziolinguistika Klusterra, 2012), ez da zaila ondorioztatzea azken urteetako hedapena ez dela zenbait datu kuantitatibok erakusten dutena bezain sendoa eta eraginkorra. Hainbat adierazlek zalantzarako tarte handirik utzi gabe islatzen dituzte euskararen argi-ilunak.

Euskararen ezagutza hedatzen ari da. Elebidunen kopurua gero eta handiagoa da. 2011ko datuen arabera, Euskal Herrian 16 urte edo gehiagoko 714.136 elebidun daude, biztanleen % 27, 1991n baino ia bost puntu gehiago (orduan kopurua % 22,3koa zen), 185.600 elebidun gehiago (HPS, 2012). Elebidunen kopurua handiagoa da gazte eta haurren artean (Euskararen Datu Basea, d.g.). Bestalde, hogeitau euskal herritarretik hiru (% 15,7) moldatzen dira euskaraz erdaraz baino hobeto edo erdaraz bezain ondo (HPS, 2008). Hogeitik hiru. Hain zuzen horixe da kalean euskaraz egiten diren elkarrizketen kopurua, % 13,3, eta, gainera, erabile-raren hazkundea trabatuta dago: azken 22 urteetan soilik % 2,5 handitu da kopuru hori (1989an % 10,8koa zen) (Soziolinguistika Klusterra, 2012).


3. Kultur kontsumorako ohiturak

Inguruabar soziolinguistiko honetan, euskal kultur kontsumoari buruzko datuetan ez da ezer harrigarri ikusten. Euskararen gaur egungo hedapenaren ezaugarri nagusiak ezagutzaren hazkundea iraunkorra izatea eta erabilera % 13ren inguruan mantentzea izanik, kulturaren eremuan emaitzak aurreikustea ez da zaila. Kulturaren hainbat adierazpidetan hizkuntzaren ardatza ziur aski esanguratsua ez den arren (dantzaren eta arte plastikoen arloko emaitza gehienetan kasu), beste hainbat adierazpidetan funtsezkoa da. Besteak beste, kontsumitzaile potentzialen kopurua nabarmen baldintza dezake. Gaur egun Euskal Herrian hiztun gehien duten hizkuntzek lor ditzaketan kopuruak oso ezberdinak dira: mundu mailan gaztelaniak 352 milioi hiztun dauzka, frantsesak 122 milioi, eta euskarak, berriz, milioi bat baino gutxiago (Aztiker, 2006).

Baina gure azterketan soilik Euskal Herria hartuko bagenu kontuan, euskararen kalterako asimetria ere nabarmena litzateke. Izan ere, erdal kulturaren kontsumo potentziala askoz handiagoa da euskal kulturaren aldean. Biztanleriari buruzko 2006. urteko datuen arabera (HPS, 2008), Euskal Herrian 3.015.558 lagun bizi ziren orotara. Horien artean 16 urte edo gehiagokoak, berriz, 2.589.600 lagun ziren. Orduan, 16 urte edo gehiagokoaren artean % 25,7 (665.800 pertsona) elebidunak ziren, % 15,4 elebidun hartzaileak (397.900 pertsona) eta % 58,9 erdaldun elebakarrak (1.525.900 pertsona). Kontuan hartuz elebidun guztiak direla erdal kultur produktuen kontsumitzaile potentzialak, datu hauen arabera ondoriozta genezake erdal kultur produktuen kontsumitzaile potentzialen kopurua 2.589.600 pertsonakoa zela (ziur aski horietatik % 91 inguru gaztelaniazkoena eta % 9 inguru frantsesezkoena) eta euskal kultur produktuen kontsumitzaile kopurua, berriz, 665.800 lagunekoa zela. Hau da, erdal kulturaren kontsumoa potentzialki ia bost aldiz handiagoa zen euskal kulturarena baino (Zubiri, 2010).

Kontsumitzaile potentzialen kopuruak, noski, eragina du kontsumo errealean. Horren ondorioz euskal kulturaren kontsumitzaile kopurua askoz txikiagoa da. Aztergai ditugun datuen arabera (ikus 1. grafikoa), euskal herritarrek askoz gutxiago kontsumitzen dute euskal kultura erdarazkoa baino. Joera orokor hori nabarmena da liburuen irakurketari dagozkion datuetan ere: hamar euskal herritarretik seik (% 58,0) irakurri dituzte aisialdiko liburuak azken hiruhilekoan, baina soilik hogeitik batek (% 6,3) euskaraz (Zubiri, 2010).

1. grafikoa. Euskal herritarren kultur kontsumoa hizkuntza guztiak barne hartuta eta euskal herritarren kultur kontsumoa soilik euskaraz. Euskal Herria, 2007 (ehunekoak).




Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008.

Oharrak: 1) Musika entzutearen kopuruak «egunero edo ia egunero» kategoriakoak dira, aisialdiari lotutako liburuaren kopuruak azken hiruhilekoak, eta gainerakoak azken urtebetekoak. 2) Musika entzutearen eta kontzertuetara joatearen kopuruak «música vasca» eta «euskal musika» kategoriei dagozkie «euskaraz» kategorian.

Euskal herritarren kultur kontsumo ohiturak aztertzerakoan, euskarazkoen kopuru txikiak ezin egotz diezaizkiokegu soilik elebidunen kopuru txikiari. Euskara ailegaten den hiztunen artean ere ez da beste hizkuntzak bezain modu eraginkorrean heltzen. Elebidunen kultur kontsumoari buruzko datuek argi islatzen dute egoera hori (ikus 2. grafikoak).

2. grafikoak. Elebidunen kultur kontsumoa hizkuntza guztiak barne hartuta eta elebidunen kultur kontsumoa soilik euskaraz. Euskal Herria, 2007 (ehunekoak)



Iturria: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008.

Oharrak: 1) Musika entzutearen kopuruak «egunero edo ia egunero» kategoriakoak dira, aisialdiari lotutako liburuen kopuruak azken hiruhilekoak, eta gainerakoak azken urtebetekoak. 2) Musika entzutearen eta kontzertuetara joatearen kopuruak «música vasca» eta «euskal musika» kategoriei dagozkie «euskaraz» kategorian.

Euskal herritarrei buruzko datuek aurreratu egiten dute hori, euskarazkoen kopuruak ez baitira elebidunen kopuruetara proportzionalki iristen. Euskal herritarrek oro har eta Euskal Herriko elebidunek oso antzeko ohiturak dauzkate kultur kontsumoari dagokionez, baina elebidunek ez dute euskal kultura erdarazkoaren pare kontsumitzen. Liburuen irakurketari dagozkien datuetan ere joera orokorra errepikatzen da: hamar elebidunetik ia seik (% 57,5) irakurri dituzte aisialdiko liburuak azken hiruhilekoan, baina soilik hamar elebidunetik bik (% 20,7) irakurri dituzte euskaraz (Zubiri, 2010).

4. Irakurle kopurua

Ez dago euskal literaturaren irakurle kopurua berriaz aztertzen duen ikerketarik, baina gaia aztergai duten hainbat datu egon, badaude. Banan-banan aztertu eta elkarren artean alderatuko ditugu.

a) Kulturaren Euskal Behatokiaren (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008; Zubiri, 2010) datuetatik abiatutako inferentzietan oinarrituz, esango genuke 147.826 edo 163.144 lagunek irakurriko luketela hiru hilerik behin libururen bat euskaraz


Goian aztertu ditugun Kulturaren Euskal Behatokiaren datuei erreparatuz has gaitzke hurbiltzen aurkitu nahi dugun kopurura. Azken hiruhilekoan aisialdiko

liburuak euskaraz irakurri dituztela erantzun dute euskal herritarren % 6,3k eta elebidunen % 20,7k. Beraz, 16 urtetik gorako euskal herritarrak 2.589.600 badira (HPS, 2012), hiru hilerik behin libururen bat euskaraz irakurtzen duten 163.144 lagun leudeke. Halaber, 16 urtetik gorako elebidunak 714.136 badira (HPS, 2012), irakurle kopurua 147.826 lagunekoa litzateke. Bestelako erreferentziarik ezean, ez dirudi zenbaki hauek ezinezkoak direnik, baina beste iturri batzuekin alderatu behar genituzke.

b) EAEn Euskara sustatzeko planaren (Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, 2011) datuetatik abiatutako inferentzietan oinarrituz, esango genuke 1.000.000 lagun direla gai euskaraz ondo irakurtzeko, baina hori ez da errealia.

EAEn irakurzaletasuna sustatzeko planak (Eusko Jaurlaritza, 2011) *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak* (Eusko Jaurlaritza, 2011) ikerketa oinarri hartuta hauxe dio: EAeko 15 urtetik gorako biztanleriaren % 40k ondo edo oso ondo irakurtzeko gaitasuna du euskaraz, eta % 35ek zailtasunik gabe idazten du euskaraz. Ondorioz, irakurle potentzialak 1.000.000 inguru lagun izango liriateke, eta idazteko gai direnak, berriz, 900.000 inguru lagun. Soilik kontuan hartuta elebidunak 714.136 direla (HPS, 2012), soilik hogeit hamar herritarretik hiru moldatzen direla euskaraz hobeto edo erdaraz bezain ondo (HPS, 2012), eta hogeit hamar kale-elkarrizketatik soilik hiru direla euskaraz (Soziolinguistika Klusterra, 2012), ez dirudi kopuru horiek zerikusi handirik dutenik guk aurkitu nahi dugun zenbakiarekin. Baina, gainera, aintzat hartu behar da elebiduna izateak ez duela irakurle potentzial bihurtzen, ez behintzat euskaraz irakurtzeko gaitasunaren aldetik, eta are gutxiago euskaraz irakurtzeko ohiturari baga-goizko. Azken horretarako nahikoa da jadanik aztertu ditugun Kulturaren Euskal Behatokiaren emaitzak kontuan hartzea: % 57,5ek irakurri ditu aisialdiko liburuak azken hiruhilekoan, soilik % 20,7k euskaraz (Zubiri, 2010).


3. grafikoa. Euskarazko egunkariak ez kontsumitzeko arrazoia. EAE, 2007 (ehunekoak).



Iturria: Ikerfel, 2007.

Irakurtzeko gaitasunari dagokionez, Ikerfel-en (2007) euskal hedabideei buruzko ikerketa argigarria da. Esate baterako, euskaldunen artean (erdaldunak ez ziren inkesta honetan sartzen) euskal egunkariak ez irakurtzeko arrazoi nagusiak bi dira (ikus 3. grafikoa): batetik, hizkuntza, eta, bestetik, beste egunkari batekiko edo batzuekiko fideltasuna. Hizkuntzaren kausari dagokionez, inkestatutakoen % 30ek erantzun du euskaraz irakurtzeko zailtasunak dituela, eta % 10ek, aldiz, gaztelaniazko albisteak hobeto ulertzen dituela. Bi arrazoi horiek lotura estua dute hizkuntzarekin. Baina beste zenbait erantzunetan hizkuntzaren osagaia ere badagoela susma genezake: esate baterako, % 40k erantzun du gaztelaniazko egunkariak irakurtzeko ohitura duela, eta % 14k, berriz, etxean gaztelaniazko egunkariak erosten dituela. Erantzun horietan zalantzarik gabe eguneroko prentsa idatziari dagokion beste faktore batek, egunkari zehatz batekiko edo batzuekiko fideltasunak hain zuzen, garrantzi erabakigarria du, nekez aldatzen baitu irakurle batek bere ohiko egunkaria, baina erantzun horietan, halaber, hizkuntzaren arrazoia ere susma daiteke. Gainera, euskararen hizkuntza-erkidegoaren ahulezia beste makina bat arlotan ere antzeman daiteke. Adibidez, Ikerfel-en azterketan zehar zenbait euskal hedabideren hizkera negatiboki baloratzen denean (Ikerfel, 2007: 63, 65, 238, 240), itxuraz aztergai den afera, hedabideen hizkera alegia, agian ez da balorazioaren funtsa, erantzun horiek batik bat hizkuntzaren egoera gutxiagotua isla baitezakete zeharka.

4. grafikoa. Euskal hedabideak kontsumitzen dituztenen artean gaztelaniaz irakurtzeko erraztasun handiagoa dutenen kopurua EAEn kontsumitzen duten hedabidearen arabera. EAE, 2007 (ehunekoak).



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2007.

Ahulezia hauek islatzen dituzten datuak argi ikus daitezke Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatutako euskal hedabideei buruzko ikerketetan (CIES, 2007a; 2007b; Ikerfel, 2007; Zubiri *et al.*, 2009) (ikus 4. grafikoa): adibidez, *Berria* irakurtzen dutenen artean % 46k erantzun du errazago

irakurtzen duela gaztelaniaz (Ikerfel, 2007: 14). Kopuru hori handiagoa da *Hitza* irakurtzen dutenen artean, % 55 hain zuzen (Ikerfel, 2007: 15). Baina idatzizkoak ez diren euskal hedabideen datuei erreparatzen badiegu, ikus genezake gaztelaniaz irakurtzeko erraztasun handiagoa dutenen kopurua are handiagoa dela: Euskadi Irratiaren kontsumitzaileen % 66k erantzun du gaztelaniaz errazago irakurtzen duela (Ikerfel, 2007: 46), eta ETB1 kontsumitzen dutenen artean ere % 66k erantzun du hori (Ikerfel, 2007: 59). Salbuespena Euskadi Gaztea da. Euskadi Gaztea kontsumitzen dutenen artean % 49k erantzun du gaztelaniaz errazago irakurtzen duela (Ikerfel, 2007: 47). Ziur aski, Euskadi Gaztearen entzuleen gaztetasunari eta adin horretakoek gaur egun duten batez besteko ikasketa-mailari eta ikasketen hizkuntza-ereduari zor zaie.

Egoera hau kontuan hartuta, beste iturri batzuk aztertzea komeni zaigu, orain arte analizatu dugunarekin alderatzeko.

c) EAEko irakurketa-ohiturei buruzko ikerketaren (Conecta, 2010; 2012; 2013) datuetatik abiatutako inferentzietan oinarrituz, esango genuke 40.713 ohiko irakurle leudekeela, edo, bestela, 80.406 ohiko irakurle moderatu, eta horietatik 21.159 ohiko irakurle sutsu leudekeela Euskal Herrian.

Euskadiko Editoreen Elkartearen ekimenez irakurketa-ohiturei buruz EAEn 1999 eta 2009 artean bi urterik behin egin zuten ikerketaren azken emaitzak kontuan hartuz gero, 10 urtetik gorako biztanleriaren % 96,4 da irakurlea: % 53,6k liburuak irakurtzen ditu, % 87,9k eguneroko prentsa, % 47,7k aldizkariak, eta % 10,4k komikiak. Nolanahi ere, % 53,6 izango litzateke ohiko irakurlea, gutxienez hilabeteroko maiztasunez irakurtzen duela esaten duena (% 29,8k egunero edo ia egunero, % 17,1ek astean behin edo bitan, eta % 6,7k hilean behin edo beste). Literatura irakurtzen dute gehien, askogatik: irakurritako azken liburuen % 83,6 izan zen literatura-arlokoa. Denek irakurri ohi dute gaztelaniaz, % 33,4k noizbait euskaraz, eta % 4,7k erantzun du euskara ere ohiko irakurketa-hizkuntza duela. Ikerketaren arabera, aztertutako populazioa 1.965.270 lagunekoa da. Beraz, euskaraz irakurri ohi dutenen kopurua 92.367 lagunekoa litzateke. Elebidunen proportzioak EAEn, NFEEn eta IEHn kontuan hartuta, V. Inkesta Soziolinguistikoa (HPS, 2012) bada erreferentzia, eta proportzioak NFEEn eta IEHn bere horretan mantenduko balira, NFEEn 9.694 eta IEHn 7.866 ohiko irakurle leudeke. Ondorioz, parametro hauek onartuko bagenitu, Euskal Herrian 109.927 lagunek izango lukete euskaraz irakurtzeko ohitura.

Atal honetan oinarri hartu dugun ikerketa ez dute berriro egingo, eta, beraz, azken urteetan Federación de Gremios de Editores de España (Conecta, 2012; 2013) izenekoak argitaratzen duen erreferentzia bakarrik daukagu, 2011 eta 2012 urtekoak azkenak, baina, funtsean, ikerketaren lagina txikiagoa den arren, eta informazio askoz gutxiago eskaintzen badu ere, ez dirudi emaitza orokorrak hainbeste aldatu direnik: EAEko ohiko irakurleak % 59,5 lirateke 2011n eta % 60,6 2012an, hizkuntza kontuan hartu gabe, 2009 urtekoan baino 5,9 eta 7 puntu gehiago, hurrenez hurren (ez da alde txikia, baina, ikerketa beste era batera egin dagoela ikusita, zaila da alde horri garrantzi handia ematea). Bestalde, euskaraz irakurtzen dutenen datuak ematerakoan, batera jartzen dituzte tartekako eta ohiko irakurleak (EAEn % 35,4, eta NFEEn % 8,3 2011an, eta EAEn % 35,0 eta NFEEn % 13,2

2012an), eta, ondorioz, ez dago jakiterik. Gainera, Nafarroako kopuruaren aldaketa handiak batik bat laginaren diseinuarekin izan dezake zerikusia, eta horrek ikerketaren beste arazo bat gehiago iradokitzen du.

Hortaz, EAerako 2009. urtean egin zuten azken ikerketaren emaitzetara itzuliz, politikoki zuzenaren aparra ekiditeko, eta, bide batez, ikastetxeetan behartutako irakurketak egiten dituztenen pisua arintzeko, beharrezko deritzot ohiko irakurlearen definizioa zorrozteari. Esate baterako, ohiko irakurlea urtean 5 eta 12 liburu artean kontsumitzen duela erantzuten duena (gakoa erantzutea da, ez egitea) dela esaten badugu, populazioaren % 30,4 litzateke ohiko irakurlea (dei diezaiogun ohiko irakurle moderatua). Hortaz, 597.442 ohiko irakurle moderatu leudeke, hizkuntza kontuan hartu gabe. Aldiz, 12 liburutik gorakoa hartzen badugu aintzat, populazioaren % 8,0 litzateke ohiko irakurlea (dei diezaiogun ohiko irakurle sutsua). Beraz, 157.221 ohiko irakurle sutsu. Marra hori beste nonbait ere jar zitekeen, agian gorago, akaso beherago, baina aurkitu nahi dugun kopurura doitzeko erabilgarria iruditzen zaigu. Are gehiago kontuan hartzen badugu 5 eta 12 liburu artean irakurri zituzten lagun horiek urte batean irakurritako liburu guztien % 35,9 irakurri zituztela. Edo, zorrotzago begiratuta, 12 liburu baino gehiago irakurri zituzten horiek irakurri zutela urte batean irakurritako liburu guztien % 50,8. Hau da, hamar lagunetik bat dela ohiko irakurlea, eta horrek egiten dituela urteko irakurketen erdiak. Maiztasunez irakurtzen dutenei buruz ari garelarik, ez dira nolanhiko kopuruak. Euskal Herrian 2.992.609 biztanle baleude, eta soilik 14 urtetik gorakoak aintzat hartuta (biztanleriaren % 87,5 hain zuzen), 2.726.400 lagun lirateke, 2005. urtean bezala (Aztiker, 2006), eta, horrez gain, euskararen eremuko biztanle oro elebiduna balitz eta berdintasunez kontsumituko balu euskaraz egiten dena, 14 urtetik gorako 218.112 ohiko irakurle sutsu, edo, bestela, ez hain zorrotz begiratuta, 978.777 ohiko irakurle moderatu izango litzuke euskal literaturak. Baina jakina da horiek ez direla gaur egungo kopuruak.

Bestalde, kontuan hartu behar da ikerketa honen emaitzen arabera % 52,0koa dela euskarazko ohiko irakurleen, euskarazko tartekako irakurleen eta euskaraz irakurtzeko gai direnen kopurua. Datu hori ez dator bat elebidunen kopuru erlatiboarekin (% 27), ezta aurretik aipatu ditugun euskaraz irakurtzeko zailtasunei buruzko datuekin ere.

Bi aldetatik zorrotz behar genuke kopurua lortzeko irizpidea. Batetik, hizkuntzaren aldaera aintzat hartuta, ikerketa honen arabera, euskarak orotara 109.927 ohiko irakurle litzukeela esan dugu. Baina, bestetik, hizkuntza kontuan hartu gabe kopurua doitzeko erabili ditugun irizpide zorrotzagoak (% 30,4 ohiko irakurle moderatuentzat, % 8,0 ohiko irakurle sutsuentzat) elebidunen kopuruekin (714.136 elebidun, HPSren azken inkestaren arabera) gurutzatuko bagenitu, ondorioztatuko genuke 217.097 ohiko irakurle moderatu edo 57.131 ohiko irakurle sutsu daudela. Baina kopuru hauek ezin ditugu bere horretan onartu, ezin baitugu ahaztu, arestian kultur ohiturei buruzko datuek erakusten dutenari jarraiki, elebidunek erdaraz baino gutxiago kontsumitzen dutela euskaraz: azken hirulekoan elebidunen % 57,5ek irakurri du aisialdian libururen bat, baina elebidunen % 20,7k egin du hori euskaraz, 2,7 aldiz gutxiago. Ondorioz, lehengo kopuruei 2,7 aldiz gutxiagoko doikuntza egingo bagenie, lehenengo bidetik lortutako datuekin (gorago kalkulatu dudana 109.927 ohiko irakurleen erreferentzia hartuz) esango genuke 40.713 ohiko

irakurle leudekeela, eta, bigarren bidetik jota (elebidunen kopurua, 714.136, ohiko irakurle moderatuen eta ohiko irakurle sutsuen galbahetik pasarazita lortzen diren emaitzak, 217.097 eta 57.131, erreferentziazat hartuz) 80.406 ohiko irakurle moderatu eta 21.159 ohiko irakurle sutsu leudekeela.

d) CIESen hedabideen kontsumitzaile kopuruei buruzko datuetatik abiatutako inferentzietan oinarrituz, esango genuke ohiko irakurle moderatuen kopurua 50.738 lagunekoa eta ohiko irakurle sutsuen kopurua 13.093 lagunekoa litzatekeela.

Liburuak euskaraz irakurri ohi dituztenen kopurua kalkulatzeko euskal hedabideak kontsumitzen dituztenen datuak erabiliko ditut orain, eta horretarako CIESen (2007a; 2007b) bi ikerketetan oinarrituko naiz. Lehenengoaren arabera (CIES, 2007a), EAEn 946.000 lagunek kontsumitzen dute eguneroko prentsa, biztanleriaren % 50,2k hain zuzen, hizkuntza kontuan hartu gabe. Irakurtzeko ohiturei buruzko ikerketan ezarri ditugun irizpideak berreskuratuz (aztertutako biztanleriaren % 30,4 da ohiko irakurle moderatua, % 8,0 da ohiko irakurle sutsua), ondorioztatuko genuke eguneroko prentsa irakurtzen dutenak baino 1,6 aldiz ohiko irakurle moderatu gutxiago daudela, eta 6,2 aldiz ohiko irakurle sutsu gutxiago. Beste era batera esanda, eguneroko prentsa-irakurleak 100 balira, ohiko irakurle moderatuak 61 eta ohiko irakurle sutsuak 16 liratekeela. Beraz, eguneroko prentsa euskaraz 123.000 lagunek irakurriko balute (hori diote CIESen emaitzek), logika horri segituz ondorioztatuko genuke 76.875 ohiko irakurle moderatu eta 19.838 ohiko irakurle sutsu leudekeela.

Emaitza horiek, ordea, ezin dira bere horretan utzi. Kontuan hartu behar dugu gorago esan duguna: euskaldun askok euskaraz irakurtzeko zailtasun (batzuetan ezintasun) handia dute. Are gehiago, hedabideak euskaraz kontsumitzen dituztenek ere euskaraz irakurtzeko zailtasunak dituzte, eta, gainera, arazo hori eguneroko euskal prentsa irakurtzen dutenen artean ere badago. Gogora dezagun: erdaraz irakurtzeko erraztasun handiagoa du ETB1 kontsumitzen dutenen % 66k, Euskadi Irratikoen % 66k, *Hitzakoen* % 55ek, *Berriakoen* % 49k eta Euskadi Gazteakoen % 45ek (Zubiri *et al.*, 2009). Zailtasunak izan arren euskal prentsa kontsumitzen duten bezala, prentsa genezake zailtasunak izan arren euskal literatura ere kontsumituko dutela, baina ehunekoa nabarmen txikiagoa izango dela ere suposa genezake. Gorago azaldu ditugun Ikerfel-en (2007) ikerketaren datuak aintzat hartuta, egoki deritzot oraintxe kalkulatu ditudan kopuru horiei herena kentzeari. Hortaz, ohiko irakurle moderatuen kopurua 50.738 lagunekoa eta ohiko irakurle sutsuen kopurua 13.093 lagunekoa lirateke.

Bestalde, erreferentzia erabilgarria da CIESen *Euskarazko komunikabideen polikontsumoari buruzko azterlana*. Ikerketa horretan euskal hedabideak kontsumitzen direnez kontuan hartuz eta kontsumitzaileen artean zenbat hedabide kontsumitzen dituzten aintzat hartuz, tipologia hau eraiki dute:

- Ez-kontsumitzaileak (EAEko euskaldunen % 42,4)
- Ez oso kontsumitzaileak (EAEko euskaldunen % 31,2)
- Kontsumitzaile ertainak (EAEko euskaldunen % 16,9)
- Kontsumitzaile handiak (EAEko euskaldunen % 9,5)

Ehuneko horiek EAeko elebidunen kopuruarekin kalkulatu bagenitu, orotara 600.058 direla kontuan hartuta (HPS, 2012), 57.005 kontsumitzaile handi eta 101.410 kontsumitzaile ertain leudeke EAEn.

5. Irakurleen ezaugarri nagusiak

Kopuruaz gain, euskal literatura irakurtzen dutenen ezaugarri nagusiak ezagutzea ere interesgarria da. Olaziregik (1998) euskal gazteen irakurzaletasuna aztertzean ondorioztatu zuen, besteak beste, adinean gora egin ahala gutxiago irakurtzen zela, emakumezkoak zirela irakurzaleenak, etxekoen eragina nabarmena zela, eta euskaldunzaharrek gainerakoek baino gehiago irakurtzen zutela euskaraz, eta, halaber, EUSTATen 1989 eta 1994 urteetako *Bizi kondizioen inkestak* oinarri hartuta, Olaziregik nabarmendu zuen, oro har, emakumezkoek eta 35 urtetik beherakoek joera handiagoa zutela literatura irakurtzeko, baina egunean aisialdirako ordubete baino gutxiago zutela gizonezkoen % 36k eta emakumezkoen % 64k. Bestalde, irakurleen ezaugarriak zeharka iradokitzen dituzten hainbat ikerketa aztertuz gero, gutxi gorabeherako argazki bat egitera hurbil gaitzke. Esate baterako, irakurketa-ohiturei buruzko inkestak (Conecta, 2010) nabarmentzen du batez bestekoaren gainetik daudela honakoak: 14-24 urte artekoak, goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak, ikasleak, 50.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak, eta Gipuzkoan bizi direnak. Era berean, CIESen (2007b) *Euskarazko komunikabideen polikontsumoari buruzko azterlanaren* arabera, kontsumitzaile handien profila honakoa da: 36 eta 65 urte artekoak, estatus altua edo ertain-altua, Gipuzkoarrak batez ere, 50.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi dira, eta unibertsitate-ikasketak dituzte. Baina datu horiek guztiak bestelakoekin alderatzea komeni da.

Zalantzarako tarte txikiena uzten duen ezaugarria irakurleen herrialdekako banaketa da. Datuok iradokitzen dutenari jarraiki (ikus 1. taula), Gipuzkoan biziko liriteke hamarretik lau baino gehixeago, Bizkaian hamarretik hiru edo lau artean, Nafarroa Garaian hamarretik bat inguru, eta gainerakoetan (Araba, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa, kopuruaren arabera hurrenkera horretan) hogeitik baten bueltan. Banaketa honek zerikusi zuzena du Euskal Herriko biztanleriaren banaketarekin: populazio handiena duten herrialdeek dute balizko irakurle gehien. Baina ez da guztiz betetzen. Esate baterako, Gipuzkoaren pisua Bizkaikoa baino handiagoa da. Fenomeno hori, ezpairik gabe, elebidunen herrialdekako banaketari zor zaio.

Halaber, udalerrien tamainaren arabera irakurleen banaketak zerikusi zuzena du biztanleriaren banaketarekin eta batik bat elebidunen banaketarekin. Horregatik da kopurua handiagoa 10.000 biztanle arteko udalerrietan, eta ondoren 10.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerrietan.

1. taula. Euskarazko liburuen irakurleak, euskaldunak eta euskarazko hedabideen kontsumitzaileak herrialdeka (ehunekoak).

<i>Herrialdea</i>	<i>Euskarazko liburuen irakurleak</i>	<i>Euskaldunak</i>	<i>Euskarazko hedabideen kontsumitzaileak</i>
Araba	8	5,8	8,3
Bizkaia	30	35,1	43,7
Gipuzkoa	42	8,2	47,9
Ipar Euskal Herria	-	-	-
Lapuri	6	-	-
Nafarroa Garaia	10	7,6	-
Nafarroa Beherea	2	-	-
Zuberoa	1	-	-
Orotara	100	100	100

Iturria: euskarazko liburuen irakurleak (Kulturaren Euskal Behatokia in Zubiri, 2010); euskaldunak (Euskararen Datu Basea 1.0, Biztanleriaren Zentsuak EUSTAT eta IEN, Eusko Jaurlaritzaren Soziolinguistikazko Inkesta, 2001); euskarazko hedabideen kontsumitzaileak (CIES, 2007).

Oharra: euskarazko liburuen irakurle kopurua eta euskaldunen ehunekoak Euskal Herriari dagozkie, eta euskarazko hedabideen kontsumitzaileen ehunekoak EAERI.

Generoari dagokionez (ikus 2. taula), datuek islatzen dutenaren arabera (Conecta, 2010; Kulturaren Euskal Behatokia, 2008), liburuak irakurtzen dituztenen artean emakumezkoen kopurua handiagoa da oro har. Aitzitik, datu horien arabera, liburuen irakurleen artean gizonezkoen nahiz emakumezkoen kopuruak berdintsuak dira liburuen irakurketari eskainitako ordu kopuruari dagokionez. Euskarazko liburuei dagokienez, berriz, gizonezkoen kopurua handixeagoa da (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008), baina ez dakigu zenbaki hauek baliagarriak diren aisialdiko literaturako liburuei dagokienez.

2. taula. Irakurleak generoaren arabera (batez bestekoak eta ehunekoak).

	<i>Irakurketa-orduen batez bestekoa</i>	<i>Irakurketa-orduen batez bestekoa gutxienez astean behingo irakurleetan</i>	<i>Liburuen ohiko irakurleak</i>	<i>Liburuak irakurtzeko interes handia</i>	<i>Aisialdiko liburuak azken hilabeteetan</i>	<i>Euskarazko liburuak azken hiruhilekoan</i>
Emakumezkoak	7,1	5,6	58,8	22,5	50,3	36,0
Gizonezkoak	7,1	5,9	48,5	12,6	43,7	37,7

Iturria: irakurketa-orduen batez bestekoa eta irakurketa-orduen batez bestekoa gutxienez astean behin irakurtzen dutenena (Conecta, 2010); gainerakoak (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008).

Oharrak: irakurketa-orduen batez bestekoa eta irakurketa orduen batez bestekoa gutxienez astean behin irakurtzen duten kopurua 14 urtetik gorako EAeko biztanleei dagozkie, azken hiruhilekoan irakurritako euskarazko liburuen kopurua elebidunei dagokie, eta gainerakoak 15 urtetik gorako Euskal Herriko biztanleei.

Adinari dagokionez (ikus 3. taula), oro har gazteagoen artean gehiago irakurtzen bada ere, lanbideko eta ikasketetako liburuak kontuan hartzen ez baditugu, eta hori egingo dugu euskal literaturaren irakurlearen profila definitzeko, badirudi euskal literaturaren irakurle kopuru erlatibo handiena 25 eta 54 urte artekoetan legokeela (Conecta, 2010; Kulturaren Euskal Behatokia, 2008). Nahasgarriak izan daitezke euskarazko liburuei buruzko datuak (Conecta, 2010; Kulturaren Euskal Behatokia, 2008), baina kontuan hartu behar da zenbaki horietan ez dela aisialdikoa eta lanbidekoa/ikasketetako bereizten, eta, beraz, aintzat hartuta 14-24 artekoetan ikasketetarako irakurketen maiztasun handia, aisialdirako liburuen maiztasun txikiagoa eta liburuak irakurtzeko interes askoz txikiagoa, ondoriozta genezake euskarazko liburuei buruzko datuen soslaiak ez duela aukerarik ematen euskal literaturaren irakurleei buruzko datu doituegirik eratoritzeko.

3. taula. Irakurleak adinaren arabera (batez bestekoak eta ehunekoak).

	<i>Irakurketa orduen batez bestekoa</i>	<i>Ohiko irakurleak</i>		<i>Liburuak irakurtzeko interes handia</i>	<i>Aisialdiko liburuak azken hilabetean</i>	<i>Lanbide-ikasketetako liburuak azken hilabetean</i>	<i>Euskarazko liburuak azken hirulekoan</i>	<i>Euskarazko eguneroko prentsa</i>	
Adina	Orduak	%	Adina	%	%	%	%	Adina	%
14-24	6,9	70,2	15-24	7,4	40,7	47,2	45,1	14-20	7,8
			25-34	17,9	50,0	24,5	36,4	21-25	12,9
25-34	7,8	62,2	35-44	22,7	56,8	23,6	36,4	26-35	21,6
35-44	7,5	57,4	45-54	23,5	54,1	18,2	34,9	36-45	22,5
45-54	6,7	58,0	55-64	17,3	45,2	7,2	23,9	46-55	16,7
55<	6,6	38,9	64<	14,6	35,4	3,2	36,1	56-65	8,9
								65<	9,6

Iturria: irakurketa-orduen batez bestekoa eta ohiko irakurleak (Conecta, 2010); euskarazko eguneroko prentsa (CIES, 2007); gainerakoak (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008) .

Oharrak: irakurketa-orduen batez bestekoa eta ohiko irakurleen kopurua 14 urtetik gorako EAEko biztanleei dagozkie, azken hiruhilekoan irakurritako euskarazko liburuen kopurua elebidunei dagokie, eta gainerakoak 15 urtetik gorako Euskal Herriko biztanleei. Euskarazko eguneroko prentsari buruzko ehunekoak bertikalak dira, gainerakoak ez

Ikasketei dagokienez (ikus 4. taula), liburuak euskaraz irakurtzen dituztenen datuak behar bezainbesteko xehetasunekin eskaintzen ez bazaizkigu ere, datu gehienek iradokitzen dute euskaraz irakurtzen dutenen artean ere joera orokorra errepikatzen dela, hau da, ikasketa-maila handitu ahala handitzen dela irakurleen kopurua eta irakurtzeko maiztasuna (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008; Conecta, 2010). Euskarazko eguneroko prentsaren irakurle kopuruei buruzko datuek berretsi egiten dute joera hori (CIES, 2007). Haatik, euskarazko liburuak azken hiruhilekoan irakurri dituztenen datuek ez dute joera hori berresten (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008). Era berean, aipatzeko modukoa da ikasleek pisu handia dutela euskarazko irakurketa-ohituretan, ikasleen artean % 59,6koa baita euskarazko ohiko eta tartekako irakurleen kopurua; okupatuaren artean, berriz, % 32,3koa, eta gainerako taldeetan % 24 ingurukoa (Conecta, 2010). Baina datu hauen xehetasun-maila txikiarekin ezin dugu jakin kopuru horiek zenbateraino diren baliagarriak euskal literaturaren ohiko irakurleak neurtzeko.

4. taula. Irakurleak ikasketa-mailaren arabera (batez bestekoak eta ehunekoak).

	<i>Irakurketa-orduen batez bestekoa oro har</i>	<i>Liburuen ohiko irakurleak oro har</i>	<i>Euskarazko ohiko eta tartekako irakurleak</i>	<i>Liburuak irakurtzeko interes handia</i>	<i>Aisialdiko liburuak azken hilabetean</i>	<i>Lanbide-ikasketetako liburuak azken hilabetean</i>	<i>Euskarazko liburuak azken hirulekoan</i>	<i>Euskarazko eguneroko prentsaren irakurleak</i>	
<i>Ikasketa-maila</i>	%	%	%	%	%	%	%	<i>Ikasketa-maila</i>	%
Oinarrizkoak	3,4	20,6	14,2	8,6	23,5	3,5	45,7	Oinarrizkoa baino gutxiago	2,8
Lehen Hezkuntza	4,7	33,2	24,2	14,2	37,8	11,1	42,7	Oinarrizkoa	14,6
Bigarren Hezkuntza	7,3	54,9	34,1	16,6	49,1	19,9	29,7	Oinarrizko Batxilergoa/LH	12,7
Unibertsitateko ertainak	7,7	73,7	35,4	28,5	68,3	36,2	40,6	Goi-mailako Batxilergoa/BBB	26,0
Unibertsitateko goi-mailakoak	9,0	81,2	38,8					Unibertsitoria	43,8

Iturria: irakurketa-orduen batez bestekoa oro har, liburuen ohiko irakurleak oro har, eta euskarazko ohiko eta tartekako irakurleak (Conecta, 2010); euskarazko eguneroko prentsaren irakurleak (CIES, 2007); gainerakoak (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008).

Oharrak: irakurketa-orduen batez bestekoa oro har, liburuen ohiko irakurleak oro har, eta euskarazko ohiko eta tartekako irakurleen kopuruak 14 urtetik gorako EAEko biztanleei dagozkie, azken hiru hilabetean irakurritako euskarazko liburuen kopurua elebidunei dagokie, eta gainerakoak 15 urtetik gorako Euskal Herriko biztanleei. Euskarazko eguneroko prentsaren irakurleen ehunekoak bertikalak dira, gainerakoak ez.

Gizarte-mailari dagozkion datuetan, aldiz, ez dago modu eraginkorrean alderatu ahal izateko daturik.

6. Ondorioak: zenbat eta nolakoak?

Alderaketa eta kalkulu hauen bitartez, ondoriozta genezake euskal literaturan

- **ohiko irakurle sutsuen taldea 15.000-20.000 lagunek** osatuko luketela, euskal literaturaren irakurleen nukleo sendoena;
- **ohiko irakurle moderatuen taldean 40.000 lagun** leudekeela, nukleoaren inguruko lehenengo periferia litzatekeena;
- **tartekako irakurleen taldekoak 100.000-150.000 lagun** ere izan litezkeela, baina ez oso sarri, eta betiere aurretik aipatutako taldeak barne hartuko balitu.

Berri nabarmendu behar dut datu hauek balizkoak direla. Bigarren mailako datuetatik abiatu eta gorago azaldu ditugun hainbat irizpide oinarri hartuta erdietsitako zenbakiak dira (ikus 5. taula).

5. taula. Ondorioen ataleko balizko kopuruaren erreferentziak.

Iturria	Abiapuntua	Galbahirako irizpideak				Kopurua	Azalpenak artikuluan non	Zer irakurle motaren erreferentzia
		Ohiko irakurle moderatua (a)	Ohiko irakurle sutsua (b)	Elebidunen irakurketa-ohiturak euskaraz (c)	Elebidunen zailtasunak euskaraz irakurtzeko (d)			
Kulturaren Euskal Behatokia (KEB)	Azken hiru hilekoan liburuak euskaraz (euskal herritarren % 6,7)	ez	ez	ez	ez	1) 147.826	4a	Tartekakoa
	Azken hiru hilekoan liburuak euskaraz (elebidunen % 20,7)	ez	ez	ez	ez	2) 163.144	4a	Tartekakoa
EJ Kultura	Euskaraz ondo irakurtzen	ez	ez	ez	ez	3) 1.000.000	4b	-
Conecta + KEB	Inkestako ohiko irakurleak	ez	ez	ez	ez	4) 109.927	4c	Tartekakoa
		ez	ez	bai	ez	5) 40.713	4c	Moderatua
HPS + Conecta + KEB	Elebidunen kopuruak	bai	ez	bai	ez	6) 80.406	4c	Moderatua
		ez	bai	bai	ez	7) 21.159	4c	Sutsua
CIES + Conecta + Ikerfel	Eguneroko euskarazko prentsaren irakurleak	bai	ez	ez	bai	8) 50.738	4d	Moderatua
		ez	bai	ez	bai	9) 13.093	4d	Sutsua
CIES	Euskarazko hedabideen kontsumitzaile handiak	ez	ez	ez	ez	3	4d	Moderatua
	Euskarazko hedabideen kontsumitzaile ertainak	ez	ez	ez	ez	3	4d	Tartekakoa

Oharra: kopuruak 15 edo 16 urtetik gorako biztanleei dagozkie.

(a) Ohiko irakurle moderatua: urtean 5-12 liburu irakurtzen dituena, Conecta-ren (2010) ikerketan populazioaren % 30,4 (azalpena 4c atalean).

(b) Ohiko irakurle sutsua: urtean 12 liburitik gora irakurtzen dituena, Conecta-ren (2010) ikerketan populazioaren % 8,0 (azalpena 4c atalean).

(c) Elebidunen euskarazko irakurketarako ohitura (KEB, 2008): hizkuntza guztiak barne hartuta baino 2,7 aldiz gutxiago (azalpena 4c atalean).

(d) Elebidunen zailtasunak euskaraz irakurtzeko (Ikerfel, 2007) (azalpena 4b atalean)

Ohiko irakurle sutsuen kopuruaren erreferentziak lortzeko, irizpide zorrotzenak hartu ditut kontuan: ohiko irakurle sutsuen irizpidearen galbahetik (irizpidea sortzeko erreferentzia: Conecta, 2010) eta elebidunen euskarazko irakurketarako ohituraren irizpidearen galbahetik (irizpidea sortzeko erreferentzia: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008) pasarazi ditut elebidunen kopurua (HPS, 2012) eta eguneroko euskarazko prentsaren irakurleen kopurua (CIES, 2007a), eta emaitzak 21.159 eta 13.093 izan dira hurrenez hurren (5. taulan 7. eta 9. kopuruak dira, hurrenez hurren; lehen kalkuluari buruzko azalpen gehiago artikuluan honen 4c atalean, eta bigarrenarena 4d atalean).

Ohiko irakurle moderatuen kopuruaren erreferentziak lortzeko, hain zorrotzak ez ziren irizpideak hartu ditugu kontuan:

- a) Conecta-ren (2010) ikerketako ohiko irakurle kopurua, elebidunen euskarazko irakurketarako ohituraren irizpidearen galbahetik (irizpidea sortzeko erreferentzia: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008) pasarazita 40.713 da emaitza (5. taulan 5. kopurua da; kalkuluari buruzko azalpen gehiago artikuluan honen 4c atalean);
- b) elebidunen kopurua (HPS, 2012) ohiko irakurle moderatuen irizpidearen galbahetik (irizpidea sortzeko erreferentzia: Conecta, 2010) eta elebidunen euskarazko irakurketarako ohituraren irizpidearen galbahetik (irizpidea sortzeko erreferentzia: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008) pasarazita 80.406 da emaitza (5. taulan 6. kopurua da; kalkuluari buruzko azalpen gehiago 4c atalean), baina kontuan hartu behar da kopuru horretan barne hartuta daudela 21.159 ohiko irakurle sutsu;
- c) eguneroko euskarazko prentsaren irakurleen kopurua (CIES, 2007a) ohiko irakurle moderatuen irizpidearen galbahetik (irizpidea sortzeko erreferentzia: Conecta, 2010) eta elebidunen ehuneko jakin batek euskaraz irakurtzeko dituzten zailtasunen irizpidearen galbahetik (irizpidea sortzeko erreferentzia: Ikerfel, 2007) pasarazita 50.738 da emaitza (5. taulan 8. kopurua da; kalkuluari buruzko azalpen gehiago 4d atalean).

Bestalde, erreferentzia lagungarria izan daiteke CIESen (2007b) euskarazko hedabideen kontsumitzaile handien kopurua: 57.005 (5. taulan 10. kopurua da; azalpen gehiago artikuluan honen 4d atalean).

Tartekako irakurleen kopuruaren erreferentziak lortzeko, artikuluan erabili ditugun galbaheetatik pasarazi ez baina irakurle kopuruaren erreferentzia orokorragoa izateko baliagarritzat jotzen ditudan iturriak erabili ditut:

- a) azken hirulekoan libururen bat euskaraz irakurri dutenak 147.826 lirateke euskal herritarren kopurutik abiatuta, eta 163.144 lirateke elebidunen kopurutik abiatuta (Kulturaren Euskal Behatokia, 2008) (5. taulan 1. eta 2. kopuruak dira; azalpen gehiago artikuluan honen 4a atalean);
- b) euskarazko liburuen ohiko irakurleak (Conecta, 2010) 109.927 lirateke (5. taulan 4. kopurua litzateke; azalpen gehiago artikuluan honen 4c atalean).

Bestalde, erreferentzia lagungarria izan daiteke CIESen (2007b) euskarazko hedabideen kontsumitzaile ertainen kopurua: 101.410 (5. taulan 11. kopurua da; azalpen gehiago artikuluan honen 4d atalean).

Irakurzaletasuna sustatzeko planaren ikerketaren erreferentzia baztertu egin dugu, soziolinguistika-arloko datuek gezurtatu egiten dituztelako haren emaitzak (5. taulan 3. kopurua da; azalpen zehatzagoa artikuluan honen 4b atalean).

Kopuruei dagokienez, merkatu handiagoetan erreferentzia txikiaren eta handienaren artean dagoen aldea ez litzateke esanguratsuegia, irakurle potentzialen kopuruari bagagozkio behintzat. Baina euskaraz argitaratzen diren liburuentzat tarte horrek berebiziko garrantzia du.

Esan gabe doa kopuru hauek liburu baten irakurle potentzialak direla, irakurleen merkatua, eta liburu bakoitzak multzo horren kopuru jakin bat bakarrik hartuko lukeela ia beti, batzuetan handiagoa, besteetan txikiagoa.

Azkenik, irakurleen profilari dagokionez, ondorioztatu dugu gehiago zabala Gipuzkoan eta Bizkaian bizi dela, batik bat lehenengoan. Ziur aski, irakurle kopurua handiagoa da emakumezkoen artean, 25-54 urte artekoetan, eta, agian, unibertsitate-ikasketak dituztenen artean.

Bibliografia

- Alonso, I. (2008): *Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai. Idazle, kritikari eta irakasleen iritziak teoria komunikatiboan argitara*, Labayru Ikastegia / Amorebieta-Etxanoko Udala, Bilbo.
- , (2010): *Erdigune literarioak irakaskuntzan*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2012): "Idazleen hierarkizazioa euskal sisteman: idazleen ikuspegia eta irakaskuntzaren mikrosistema", *Uztaro*, **81**, 41-59.
- Alonso, J. (2012): "Literatura eta euskararen garabidea", *BAT soziolinguistika aldizkaria*, **83** (2), 155-166.
- Atxaga, B. (2009): "Erlea´ aldizkaria kalean da", <http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&Itemid=392&catid=121&id=3137&lang=en&view=article>.
- Aztiker (2006): *Euskal Herria datuen talaiaitik 2006*, Txalaparta, Tafalla.
- CIES (2007a): *Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa*, argitaragabea.
- , (2007b): *Euskarazko komunikabideen polikontsumoari buruzko azterlana*, argitaragabea.
- Conecta-Reseach & Consulting / Euskadiko Editoreen Elkarte (2010): *Hábitos de lectura y compra de libros en la Comunidad Autónoma Vasca. Año 2009*, http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19803/es/contenidos/informacion/keb_publicaciones/es_publicac/adjuntos/HLCL%20C.A.%20VASCA%202009_V2.pdf>.
- Conecta Research Consulting / Federación de Gremios de Editores de España (2012): *Hábito de lectura y compra de libros en España 2011*, <http://www.federacioneditores.org/0_Resources/Documentos/Habitos_lectura_CompraLibros_2011.pdf>.
- , (2013): *Hábitos de lectura y compra de libros en España 2012*, <http://www.mcu.es/libro/docs/MC/Observatorio/pdf/Habitos_lectura_2012.pdf>.
- Euskararen Datu Basea (d.g.): *Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera. Euskal Herria*, <<http://www.sociolinguistika.org/edb/>>.
- Eusko Jaurlaritz, Kultura Saila (2011): *Euskal Autonomia Erkidegoaren irakurzaletasuna sustatzeko planaren azterketa eta diagnostikoa*, <http://www.kulturklik.euskadi.net/wp-content/uploads/2012/04/3PLPV_analisis2_111107-eus.pdf>.
- Eusko Jaurlaritz, Lehendakaritza (2011): *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak*, <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_10tef3_euskera/eu_10tef3/adjuntos/10tef3_euskera_eu.pdf>.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS), Eusko Jaurlaritz (2008): *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*, <http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/libro/iv_inkesta_soziol/eu_ink/adjuntos/IVInkesta%28Eusk%29.pdf>.

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS), Eusko Jaurlaritz (2012): *V. Inkesta Soziolinguistikoa*, <http://www.kulturklik.euskadi.net/wp-content/uploads/2012/07/Euskal_Herria_inkesta_soziolinguistikoa_2011.pdf>.
- Ikerfel (2007): *Euskarazko komunikabideak erabiltzeko eragingarriak eta eragozpenak*, argitaragabea.
- Kulturaren Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritz (2008): *Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008*, <http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19123/eu/contenidos/informacion/est_hp/eu_hp_eh/adjuntos/EH-euskera.pdf>.
- Olaziregi, M. J. (1998): *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa*, Bergarako Udala, Bergara.
- Sarasola, I. (1975): *Euskal literatura numerotan*, Kriseilu, Donostia.
- Soziolinguistika Klusterra (2012): *Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011*, <<http://www.soziolinguistika.org/files/VI%20Kale%20Neurketa-%20Emaizen%20xostena.pdf>>.
- Torreal dai, J. M. (1977): *Euskal idazleak gaur*.
 _____, (urtero): "Euskal liburugintza", *Jakin*.
- Zabala, J. L. (urtero): *Euskal Liburuak*, Olerti Etxea, Zarautz.
 _____, (urtero): "Euskal literatur sokuntza", Egan.
- Zaldua, I. (2012): *Ese idioma raro y poderoso. 11 decisiones cruciales que un escritor vasco está obligado a tomar*, Lengua de trapo, Madril.
- Zubiri, H.; Aierdi, X.; Aldaz, J.; Alkorta, E.; Retortillo, A. (2007): *Bertsolaritza, tradizio modernoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Zubiri, H.; Aierdi, X.; Retortillo, A. (2009): "Euskal hedabideak EAEn", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, **68**, 85-101.
- Zubiri, H. (2010): "Euskara eta kultura-kontsumoa", in *Kultura 08-09*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.

